

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

COVID-19ak eragindako osasun larrialdiko krisiak mikroenpresetan eta autonomoengan izandako eragina arintzeko laguntzen oinarri arautzaileak

2020ko irailaren 22ko aparteko bilkuran, COVID-19ak eragindako osasun larrialdiko krisiak mikroenpresetan eta autonomoengan izandako eragina arintzeko laguntzen oinarri arautzaileak onetsi ziren.

COVID-19 koronabirusaren bilakaerak sortutako ezohiko egoeraren ondorioz, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onetsi zen. Errege dekretu horren bidez, alarma egoera deklaratzeko da, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko, eta zenbait neurri ezartzen dira, herritarren osasuna eta segurtasuna babesteko, gaixotasuna hedatzea eragozteko eta osasun publikoko sistema indartzen laguntzeko.

Alarma egoeran hainbat neurri hartu ziren: urruntze soziala, mugikortasun murrizketak, berrogeialdiak eta blokeoak.

Zalantzarik gabe, alarma egoera deklaratzeko hartutako neurriek berehalako eragina izan zuten bai eskarian, bai eskaintzan, eta enpresei zein enplegatuei eragin zieten. COVID-19 agerraldiak enpresei eta, beraz, bertako langileei eragin zien berehalako ondorioetako bat izan zen ezarritako neurriengatik diru sarrerarik ez izatea, likidezia falta larria izatea, eta horrek nabarmen eragin zion haien egoera ekonomikoari epe labur eta ertainean. Baina likidezia falta horrek ondorio iraunkorragoak ere izan ditzake, haien biziraupena arriskuan jartzen baitu.

Mikroenpresek eta autonomoek dute, bereziki, likidezia gabezia hori, eta, beraz, Kanpezuko Udalak ezinbestekotzat jotzen du laguntza publiko bat ematea, bai enpresa mota horientzat likidezia nahikoa dagoela bermatzeko eta horrela enpresa osasuntsuei egindako kaltea arintzeko, bai COVID-19aren agerraldiaren ondoren lanean jarrai dezaten bermatzeko.

Horregatik, Kanpezuko Udalak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17. artikulua arabera ekonomia eta gizarte garapenaren arloan dituen eskumenak baliatuz, premiazko neurri gisa jartzen ditu martxan laguntza horiek, COVID-19ak eragindako pandemiak Kanpezuko udalerrian errolatuta dauden edo egoitza bertan duten mikroenpresetan eta autonomoengan izandako kalte ekonomikoa arintzeko.

Horretarako, 2020ko maiatzaren 19ko osoko bilkuran, aurrekontu aldaketa onetsi zen, eta 230.480.000 partida eratu zen, 40.000 eurokoa, 05/20 kreditu gehigarriaren espedientearen bidez.

Oinarri hauek egiterakoan kontuan hartu da eragiten dien Europako araudia, eta bateragarriak dira merkatu bateratuarekin, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluekin bat etorriz, COVID-19aren agerraldiaren testuinguruan ekonomia babesteko estatu laguntzen neurriei lotutako denbora esparruaren barruan.

1. Laguntzaren xedea, baldintzak eta helburua

1. Erabaki honen xedea da oinarri arautzaileak ezartzea Kanpezuko Udalak eman beharreko laguntzei buruz. Dirulaguntzen helburua da COVID-19ak eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri ondoren COVID-19ak eragindako osasun larrialdiko krisiak mikroenpresetan eta autonomoengan izandako eragina arintzea.

2. Programa honen helburua dirulaguntzak ematea da, Kanpezuko udalerriko ehun produktibo eta sozialari babesa eta euskarria emateko neurri gisa, jarduera ekonomikoa ahalik eta lasterren berraktibatu dadin; horretarako, alarma egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua edo horretarako emandako araudia (COVID-19ak eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko mugak edo ixteko betebeharra mantentzen duena) indarrean sartzearen ondorioz establezimenduak itxi edo erabilera mugatu beharrari lotutako egiturazko gastuak lagunduko dira diruz.

3. Nahitaezko itxierak iraun bitartean aurrez aurreko jarduera edo jendearentzako irekiera eten edo mugatu beharraren ondoriozko eragin ekonomikoa arintzeko erabili beharko dute laguntza onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiek.

4. Hiru laguntza lerro ezarri dira:

4.1. Apirileko, maiatzeko eta ekaineko ur ordainagiriak 120 euro arteko dirulaguntza jasoko du.

4.2. Apirilean, maiatzean eta ekainean COVID-19aren inguruko aholkularitza dela-eta sortutako aholkularitza gastu osagarrien ehuneko 80raino lagunduko da diruz, 150 euroko mugarekin.

4.3. Negozioa COVID-19ak eragindako egoera berrira egokitzeko egindako obra edo aldaketengatik 300 euro arteko dirulaguntza emango da.

5. Enpresa edo etendako jarduera ekonomikoki bakoitzeko eskabide bakarra lagundu ahal izango da diruz, artikuluko honetako aurreko ataleko laguntza lerro bakoitzeko.

Hortaz:

– Zure enpresak autonomo bat baino gehiago izan arren, horietako batek bakarrik eskatu ahal izango du laguntza.

– Zure enpresak lantoki bat baino gehiago izan arren, eskabide bakarra aurkeztu ahal izango duzu.

– Zure enpresak eten egin behar izan den jarduera bat baino gehiago egin arren, eskabide bakarra aurkeztu ahal izango duzu.

2. Pertsona onuradunak

1. Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira Kanpezuko udalerrian merkataritza, hezkuntza, kultura ekipamendu, jolas establezimendu eta jarduera, ostalaritza eta jatetxe jarduera eta beste jarduera batzuen esparruan jarduera ekonomikoki egiten duten mikroenpresak eta pertsona autonomoak, edozein dela ere haien forma juridikoa, baldin eta aurrez aurreko jarduera edo jendearentzako irekiera etetera behartuta egon badira martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean sartzearen eta haren aldaketen eta luzapenen ondorioz, edo baldin eta jarduera eten ez badute baina martxoan, apirilean eta maiatzean izandako fakturazioan ehuneko 30eko murrizketa izan badute alarma egoera deklaratu aurreko seihileko naturaleko fakturazioaren batez bestekoarekin alderatuta.

2. Eskatzaileek Kanpezuko udalerrian izan behar dute egoitza soziala, lantokia edo sukurtsala; gainera, behar bezala eratuta eta alta emanda egon beharko dute jarduera ekonomikoaren gaineko zergan; baldintza horiek guztiak martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri aurretik bete beharko dira.

3. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri zenean, onuradunak egunean egon behar zuen bere betebeharretan, baita Gizarte Segurantzarekikoetan ere. Hori egiaztatzeari dagokionez, onuradunak eskaera aurkezteak baimena emango dio kudeaketa organoari zerga administrazioak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek egin beharreko ziurtagiriak eskuratzeko. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori, eta, halakorik egiten baldin badu, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

4. Laguntza hauetatik kanpo geratzen dira, berariaz, elkarteak, jabetza horizontaleko araubidean dauden jabeen erkidegoak, administrazio publikoak, haien mendeko erakunde publikoak, erlijio kongregazio eta erakundeak, aldi baterako enpresa elkarteak, ondasun erkidegoak, jaraunspen jasogabeak eta nortasun juridikorik gabeko gainerako erakundeak.

5. Mikroenpresatzat hartuko dira 10 langile baino gutxiago dituztenak, baldin eta urteko negozio bolumena edo urteko balantze orokorra gehienez 2 milioi eurokoa bada.

3. Dirulaguntzak emateko araubidea

Dirulaguntzak emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da beti, deialdia egin ondoren, eta lehiarik gabeko konkurrentzia araubidean izapidetu eta ebatziko da. Hartzailaren egoera jakin bat gertatze hutsagatik izapidetuko da, eta ez da beharrezkoa izango eskaeren arteko alderaketa egitea, ezta eskaeren lehentasun hurrenkera ezartzea ere.

4. Aurrekontuko kreditua

Aipatutako laguntzen aurreikusitako zenbatekoa 40.000 euro da eta 2020ko ekitaldi ekonomikoko udal aurrekontuen 230.480.000 "Udalerrria gizarte eta ekonomia arloan suspertzeko plana" partidaren kontura ordainduko da.

5. Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak

Kanpezuko Udaleko Erregistro Orokorreko sarrera ordenari jarraituz izapidetu eta ebatziko dira eskabideak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua araberan, baldin eta aurrekontu kontsignaziorik badago.

6. Eskaerak aurkezteko epea

1. Eredu ofizialarekin (I. eranskina) bat etorri behar dira eskaerak eta Kanpezuko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira (Samuel Picaza plaza 1. zk., Kanpezu); Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan adierazitako edozein bide ere erabili ahalko da eskaerak aurkezteko.

2. Eskaerak aurkezteko epea deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2020ko azaroaren 2an bukatuko da.

3. Eskaerak edo harekin batera aurkeztutako nahitaezko agiriek hutsen bat badaukate edo osorik ez badaude, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie, errekerimenduaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera hautemandako akatsak zuzentzeko; epe hori igaro eta jakinarazitako akatsak ez badituzte zuzendu, beren eskaeran atzera egiten dutela ulertuko da eta prozedura artxibatu egingo da.

7. Aurkeztu beharreko agiriak

1. Eskaera orria (I. eranskina).

2. NANaren fotokopia.

3. Sozietateen kasuan, eratze eskritura eta Merkataritza Erregistroan erregistratutako estatutuak. Autonomoek Langile Autonomoen Araubide Berezian alta eman izanaren egiaztatzea aurkeztu beharko dute.

4. Eskaeraren sinatzailearen ordezkariak ahalordea, hala badagokio.

5. Banku kontuaren titulartasun ziurtagiria.

6. Baldin eta udalari eskaera egiteko baimenik ematen ez bazaio, zerga agentziarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean sartu baino hilabete baino gutxiagoko antzinatekin eginak.

7. Enpresaren lan bizitzari buruzko txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak 2020ko martxoaren 14an egina.

8. Alta egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek 2020ko martxoaren 14an egina, edo, hala badagokio, langilerik ez izatearen erantzukizunpeko adierazpena.

9. Jarduera ixteko aginduari lotutako egiturazko gastuak egiaztatzen dituen memoria laburra.

10. Fakturazioa 2. puntuan adierazitakoaren arabera murriztu dela egiaztatzen duen dokumentazioa, hala badagokio.

8. Instrukziorako eta ebazpenerako organo eskuduna

1. Alkatetzak izango du espedientea bideratzeko eskumena. Espedientea ebazteko organo eskuduna Alkatetza izango da, hirugarren atalean zehaztutako kide anitzeko organoak aldeko irizpena eman ondoren.

2. Kanpezuko Udaleko Erregistro Orokorreko sarrera ordenari jarraituz izapidetuko dira eskabideak, baldin eta aurrekontu kontsignaziorik badago. Espedientearen instrukzioan lan hauek egin behar dira:

– Ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren txostenak eskatu, besteak beste, idazkari kontuhartzaileari.

– Eskaerak ebaluatu, oinarri arautzaile hauetan zehazten diren irizpideen arabera.

3. Eskaera aztertu ondoren, Alkatetzak ebazpen proposamena egingo du, eta kide anitzeko organoak horren inguruko txostena emango du. Hona hemen organo horren osaera:

– Burua: Kanpezuko Udaleko alkatea edo hura ordezkatzeko duen pertsona.

– Mahaikideak:

* Udaleko talde politiko bakoitzeko ordezkari bana.

* Udaleko kontu hartzailea, udaleko teknikaria. Hitza izango du, baina botorik ez.

– Mahaiko idazkaria: udal funtzionarioa.

4. Alkatetzak dirulaguntzak emateko ebazpena emango du, arrazoiak azalduta. Ebazpena emateko epea 20 egunekoa izango da, eskaerak aurkezten direnetik kontatuta. Ebazpena epe horretan ematen eta jakinarazten ez bada, eskaera ezetsizat jo beharko da.

5. Ebazpenak administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8,1.c) artikuluan xedatzen duenaren arabera. Horretarako bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Horren aurretik, errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Kanpezuko Udaleko alkatetzari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatzen duenarekin bat etorriz.

9. Justifikatzeko epea eta era

1. Oinarri hauetan eta dagokion deialdian eskatutako dokumentazio guztia aurkeztuta joko dira justifikatuztat dirulaguntzak, eta, beraz, dirulaguntza ematea ebatzi ondoren, onuradunari dirulaguntza ordaintzeko izapideak egingo dira; dena den, jarduera berriz hasteko betebeharrei dagokienez, hurrengo oinarrian aurreikusitakoa bete beharko da.

2. Nahitaezko itxiera epea amaitu eta lau hilabeteko epean ekin beharko diote berriro jarduerari laguntza hauen onuradunek, salbu eta behar bezala frogatutako osasun arrazoiak direla eta hori posible izan ezean. Hilabeteko epea izango dute, irekieratik zenbatzen hasita, jarduerari berriz ekin zaiola egiaztatzeko. Konpromiso hori betetzen ez bada, itzuli egin beharko dira jasotako zenbatekoak eta berandutze interesak.

10. Xede bererako emandako beste laguntza batzuen bateragarritasuna edo batera ezintasuna

Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek, eskualdekoek, nazionalak, Europar Batasunekoek edo nazioartekoek emandako dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin, baldin eta laguntzen zenbateko osoak ez badu gainditzen Europar Batasunak denbora esparruan eta minimis laguntzen esparruan ezarritako intentsitate muga.

11. Arau hausteak eta zehapenak

Dirulaguntzen arloko arau hausteekin eta zehapenekin lotutako gaietan, osorik aplikatuko dira Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan eta lege horren arautegia onetsi zuen 887/2006 Errege Dekretuak IV. tituluan xedatutakoa.

12. Araudi aplikagarria

Oinarri arautzaile hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onesten duena, eta Kanpezuko Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza.

Santikurutze Kanpezu, 2020ko irailaren 23a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO

I. ERANSKINA**COVID-19AK ERAGINDAKO KRISI EKONOMIKOAK KALTETUTAKO KANPEZUKO
ETE ETA AUTONOMOENTZAKO APARTEKO LAGUNTZEN ESKAERA**

IZEN-ABIZENAK/SOZIJETATEAREN IZENA.....
AGIRI ZK.
TELEFONOA.....
EMAILA
HELBIDEA.....
P. K..... HERRIA.....
PROBINTZIA.....

HAU ADIERAZTEN DU

Kanpezuko Udalak, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko osasun krisiak sortutako defizita arintzeko argitaratutako laguntzen deialdia ikusita eta horietan jasotako oinarriak ezagututa.

HAU ESKATZEN DU

LEHENENGOA. Laguntza emateko aukera azter dadila, modalitate honetan:

- Mikroenpresentzako laguntzak.
- Autonomoentzako laguntzak.

BIGARRENA. Eskatzaileak, **BERE ERANTZUKIZUPEAN, ADIERAZTEN DU:**

1. Egunean dauzkala betebeharrak, bai eta Gizarte Segurantzarekikoak ere.
2. Ez daukala Dirulaguntzen Lege Orokorren 13.2 artikuluan ezarritako debekurik dirulaguntzen onuraduna izateko.
3. Kanpezuko Udalarari baimena ematen diola behar diren egiaztapenak egiteko.

HIRUGARRENA. Dokumentazio hau erantsi duela: (X batekin adierazi).

- Eskaera orria (I. eranskina).
- NANaren fotokopia.
- Sozietateen kasuan, eratze eskritura eta Merkataritza Erregistroan erregistratutako estatutuak. Autonomoek Langile Autonomoen Araubide Berezian alta eman izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute.
- Eskaeraren sinatzailearen ordezkaritza ahalordea, hala badagokio.
- Banku kontuaren titulartasun ziurtagiria.
- Baldin eta udalari eskaera egiteko baimenik ematen ez bazaio, zerga agentziarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean sartu baino hilabete baino gutxiagoko antzinatasunarekin emanak.
- Enpresaren lan bizitzari buruzko txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorak 2020ko martxoaren 14an emana.
- Alta egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorak 2020ko martxoaren 14an egina, edo, hala badagokio, langilerik ez izatearen erantzukizunpeko adierazpena.
- Jarduera ixteko aginduari lotutako egiturazko gastuak egiaztatzen dituen memoria laburra.
- Fakturazioa 2. puntuan adierazitakoaren arabera murriztu dela egiaztatzen duen dokumentazioa, hala badagokio.

LAUGARRENA. Eskaera honen ebazpena aldekoa bada, dagokion kopurua kontu korrante honetan sar dadila:

ERAKUNDEA	
TITULARRA	
IBAN	
KONTU ZK.:	

DATA ETA SINADURA

KANPEZUKO UDALEKO ALKATEARI